



ies botikazar bhi

Betidanik egon den arazo bat da arropen erabilpena. Arropa gizakian funtsezkoa den gauza bat da. Arropa gure gustuak, gure izaera, gure pentsaera eta beste hainbat gauza islatzen ditu. Txikia zarenean gorputza aldaketak sakonak izaten ditu denbora gutxian eta horrek ondorioztatzen arropa aldatzen egotearen beharra. Hori dela eta, mundu guztiak ez ditu hori egiteko baliabideak, hau da, edonork ez dauka diru nahikorik hilabetero arropa berria erosten egoteko. Horregatik uste dugu gure zerbitzua oso ideia ona dela bilboko biztanleriarentzako.

Zoritarrez inguruan (Bilbon) ez dago honelako zerbitzurik eskaintzen duen enpresarik. Beraz, honelako enpresa bat hemen egotea aukera berriak ekarriko ditu Bilboko jendearentzat, esaterako, arropa erosteko era merkeago eta jasangarriago batean erosteko aukera.

Halaber, bigarren eskuko arropa denez, arropa horiei bigarren bizitza emateaz aparte ekosistemarentzako ez da kaltegarria izango, hain zuzen ere, ez dugu kutsatuko berria izango balitz bezala. Honek ondorioztatzen, enpresa multinazionalak haien lantegietan eragindako kutsadura murriztea. Honi esker, gaur egun dugun arazo handiena (aldaketa klimatikoa, ozono geruza ez apurtzea...) handiago ez egiten saiatuko gara.

Izan ditzakegun bezeroei dagokienez, bezero finakoak izango dituen enpresa iruditzen zait, arazo ekonomiko, sozial eta abar ugariengatik. Beti egongo dira umeak munduan. Beraz, Bibizi negozio bikaina da.

Gainera, inguruan ez dago gure negozioen antzekorik eta, beraz, gurea negozio berritzailea izango litzateke.

BALIO/BALOREZKO PROPOSAMENAK:

Betidanik arropa ekoizpen masiboaren arazoa egon da, batez ere ume txikien artean, oso azkar hazten baitira. Esandako moduan ume txikiak hasten diren bitartean, askotan erabiltzen duten arropa bakarrik

behin edo oso gutxitan erabiltzen dute, denbora tarte txikian asko handitzen direlako eta lehen zuten arropa ez zaie sartzen. Hori dela eta, gure zerbitzua, arazo horren konponbide bat da, izan ere, arropa berria erosi beharrean gure dendan askoz merkeago eta kalitate berekoarekin erosi ahal izango dute.

Gure enpresan badira zenbait puntu argi geratzen direnak, ezaugarrietatik hasita. Lehenik eta behin, arroparen batek kalte arina badu (adibidez, botoi-falta bat, hautsitako kremlera bat edo kalte arin bat), gu arduratuko gara horiek konpontzeaz eta saltzeko prest jarriko dugu, eta hornitzailearekin prezio bat finkatuko da, baina diru hori emango da beti ere hilabete batean saltzen bada. Baldin eta saltzen ez bada, hornitzaile horiei mezu bat helduko zaie arropa hartzeko edo nahi ez izatekotan guk izango gara arropa horrekin zer gertatuko den erabakiko dugunak.

Bezero bati arropa erostea errazteko, web-orri bat prestatuko dugu, eta bertan salmenta erraza izango da. Ez dugu irteera-preziorik izango, hainbat faktorek baldintzatzen baitute, hala nola arropa motak eta zein egoeratan dagoen. Horrez gain gure dendetan, probagailu bat izango ditugu ume guztiak arropa proba dezaten.

Horrez gain, Bilbo ororen truke edukiontziak jarriko ditugu, jendeari zerbitzatzen ez dizkioten jantziak biltzen lagunduko digutenak, eta hauek bildu eta gure dendan jarri ahal izango ditugu, prezio ekonomiko batean, produktua hobetu ondoren.

Horren harira, posible izango litzateke arropa bueltatzea eman dugun egoeran bueltatzen baldin bada, hori bai bueltatzekotan epe bat izango dugu ezin izango da bueltatu hilabete batean zehar erailitako produkturen bat aste bakarreko epea izango dugu bueltatzeko.